


Emakume bat



Ilustratu - Liburu kritika

Osteguna, 2012(e)ko apirila(r)en 26-(e)an 11:37etan



Annie Ernaux
Txalaparta, 2011

Annie Ernaux idazle frantziarraren laugarren nobelaren itzulpena eskaintzen digu Txalaparta argitalekoak, Amaiur bildumaren baitan. Itziar de Blas Fernandez de Gamarrak egin du Frantziar klasikoa den nobela honen itzulpen lana.

Protagonistaren amaren heriotzarekin hasten da nobela. Mina gainditzeko asmoz, haren historia idazten hasten da alaba, terapia horren bidez ama munduratu nahi baitu. Alabaren idatziaren bidez ezagutuko dugu amaren bizitza eta hark izandako eboluzioa, 1906an Yvetot hiriaren kanpoaldean familia pobre batean jaio eta 81 urterekin, alzheimerrak jota, geriatrikoan hiltzen den arte.

Banakako oroitzapenetatik esanahi orokorragoak aurkitzen saiatzen da alaba protagonista, ama ulertu nahian. Ama-alaben arteko erlazioaren esperientzia unibertsala transmititzen du azken finean Ernauxek, eta horrek egiten du erakargarri nobela,

emakumeok bertan islatuta sentituko baikara askotan.

Auto-fikzio biografikoa dugu *Emakume bat*, autorearen ama bularreko minbiziaz hil baitzen 1987an. Bere bizitzako esperientziak islatzen dituzten nobela autobiografikoak idazten ditu Ernauxek, narratzaile izateaz gain, nobelako protagonista bihurtuta. **Nerabetasunaz** idatzi du (*Ce qu'ils disent ou rien*), bere ezkontzaz (*La femme gelée*), izandako abortuaz (*L'événement*), amaren alzheimerraz (*Je ne suis pas sortie de ma nuit*) eta abarrez. Renaudot sari ospetsua jaso zuen 1984an.